

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN**13/2021 TXOSTENA****Gaia:** Harrera Etxea ostatu zerbitzuaren Ordenantza onartzea**Espediente tramitatuak:** Gizarte Ongizaterako saila**Espediente zenbakia:** IDA_ERA_0037 (2021)**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionalako Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua**Aurrekariak**

Lehena.- 2021eko martxoaren 12ko Gizarte Ongizaterako saileko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen teknikariaren txostenaren arabera Harrera Etxea ostatu zerbitzuaren Ordenantza onartzeko beharizana dago.

Bigarrena.- 2021ko otsailaren 23tik 2021eko maiatzaren 9ra arte kontsulta publikoa egin da Bermeoko udaleko webgunean, konpondu nahi diren arazoak egokitasuna, helburua eta beste aukera erregulatuak azalduz. 2021eko otsailaren 24ko Gizarte Ongizaterako saileko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen teknikariaren txostenaren arabera kontsulta publikoan ez da ekarpenik aurkeztu.

Hirugarrena.- 2021eko martxoaren 12an Gizarte Ongizaterako saileko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen teknikariak ordenantzaren zirriborroa prestatu du.

Laugarrena.-**Oinarri juridikoak****1. Aplikagarria den araudia**

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (4.1.a, 22.2.d, 25, 49, 65.2, 70.2 artikulua)



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 15/03/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/03/2021
10:16:23

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0037
Data: 10/02/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E5000622A100A9T6U2K9Z9M9



- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki erakundeen zerbitzuen araudia onartzen duena (23-29 artikulua)
- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki erakundeen lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena. (56 artikulua)
- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedimendu Erkidearen Legea (128,129 eta 133 artikulua)

2. Azterketa juridikoa

A) Oinarrizko kontzeptuak

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legeak 4.1. a artikuluan eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedimendu Erkidearen 39/2015 Legearen 128.artikuluan aitortzen da udalek duten eskumena araudiak egiteko eta autoorganizatorako. Hori horrela, Bermeoko Udalak bere eskumenen inguruan legeek ezarritakoa garatu dezake izaera orokorreko xedapen administratiboen bitartez, zeintzuk beti legea errespetatu behar duten.

Hori horrela, egoki ikusten da Harrera Etxea ostatu zerbitzuaren Ordenantza landu, izapidetu eta onartzea. Izan ere, proposatzen den ordenantza 2008ko abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 22. artikuluan eta 2015eko Urriaren 6ko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren 33.a) artikuluan dauka oinarria.

Ordenantza onartzeko nahitaez 39/2015 Legearen 129.artikuluan ezartzen diren printzipioak errespetatu behar dira espediente guztian zehar, hau da, beharrezana, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak.

Kuantifikatu eta balioetsi behar dira ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 15/03/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/03/2021
10:16:23

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0037
Data: 10/02/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E5000622A100A9T6U2K9Z9M9



B) Jarraitu beharreko prozedura

39/2015 Legearean 49. eta 133. artikulua eta 7/1985 Legearen 70. artikulua kontuan hartuta prozedura hurrengoa izan behar da:

a) Ordenantza udalaren urteko plangintzan aurreikusita egotea (39/2015 legearen 132art).

Plangintza aldatzeko proposamena bideratu da.

Argi utzi behar da, nahiz eta Francisco Velasco moduko adituek defendatu Konstituzio Auzitegiaren 55/2018 epaiaren geroztik artikulua hori ez dela Toki erakundeentzat oinarritzakoa, praktika on moduan hartzen dela.

b) Saileko teknikari arduradunak Harrera Etxea ostatu zerbitzuaren Ordenantza onartzeko beharrezko justifikatu du eta erregulazio oneko printzipioak bete direla zioen azalpenean jaso du.

c) Hala dagokionean, ordenantzaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Bermeoko Udalaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- ◆ Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- ◆ Arau hori onestea beharrezko eta egoki den
- ◆ Arauaren helburuak.
- ◆ Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Izapide hori prozeduran burutu izan da.

d) Saileko teknikari arduradunak Harrera Etxea ostatu zerbitzuaren Ordenantza onartzeko erabaki proposamena egin du eta edukiari dagokionez zuzena da.

e) Kontuhartzaileak txostena egin beharko du kuantifikatzeko eta balioesteko ordenantzaren eragin eta erreperkusioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 15/03/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/03/2021
10:16:23

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0037
Data: 10/02/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E5000622A100A9T6U2K9Z9M9



f) Idazkari nagusiak txostena egin beharko du.

Behin idazkariaren aldeko txostena izanda hurrengo pausuak eman beharko dira.

g) Informazio batzordeak erabaki proposamenaren irizpena eman beharko du.

h) Osoko bilkuraren ordenantza hasieraz onartuko du, gehiengo soilez, 7/1985 Legearen 22.2.d eta 47. artikuluekin bat etorriz.

i) Informazio publikoa eta entzunaldia gauzatu dira, interesdunek 30 eguneko epean erreklamazio edo iradokizunak aurkezteko. Hasierako onarpena webgunean, edikuen taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

j) Hala dagokionean, ordenantzak pertsonen eskubide eta interes legitimoiei eragiten dienean, Udalak webgunean argitaratuko du testua, ukitutako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzan dituzten eta beren helburuak arauaren xedearekin zerikusi zuzena duten antolakunde edo elkarte legez aitortuei.

Legeak ez diosku entzunaldi hori noiz burutu behar den, baina praktikan (eta jurisprudentziak zalantza argitu arte) egoki ikusten da Osoko Bilkuraren kontsulta publiko eta entzunaldien gidalerroen inguruan hartutako akordioa eraldatzea eta entzunaldi hori informazio publikoaren fasearekin batera egitea, proportzionaltasuna, efikazia eta efizientzia handiagoa bermatzeko, eta, beti ere, herritarren eta elkarten eskubideak erabat errespetatuta.

k) Osoko Bilkurak aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebatzea eta behin betikoz ordenantza onartzea.

Hasierako onarpenean ezarri daiteke erreklamaziorik izan ezean Harrera Etxea ostatu zerbitzuaren ordenantza automatikoki behin betikoz onartuta egongo dela baina horretarako arduradunaren txostenean oinarritutako idazkariaren ziurtagiria beharko da alegaziorik egon ez direla egiaztatuz.

l) Erabakia eta ordenantzaren testu osoa argitaratu beharko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko Udaleko gardentasun atalean eta ediktuen taulan eta



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 15/03/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/03/2021
10:16:23

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0037
Data: 10/02/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E5000622A100A9T6U2K9Z9M9



indarrean sartuko da BAO n argitaratu eta 15 lanegun igarota, 7/1985 Legearen 70.2 eta 65.2 artikuluen arabera.

Ondorioak

Momentu honetara arte jarraitutako prozedura zuzena da, beharrezana, efikazia, proportzionaltasuna, gardentasuna eta efizientzia printzipioak errespetatu baitira; beraz, Harrera Etxea ostatu zerbitzuaren Ordenantza onartzearen proiektuari **aldeko txostena** egiten zaio.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.


Bermeon, Orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkari nagusia



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu. Kodea: 07E5000622A100A9T6U2K9Z9M9	Sinadurea eta data JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 15/03/2021 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 15/03/2021 10:16:23	EXPEDIENTE :: 2021IDA_ERA_0037 Data: 10/02/2021 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia